ZUZENEKO BESTERENTZEAREN BIDEZ UDAL-TURISMOA SALTZEKO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA

KONTRATUAREN OSAGAIAK

1. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Kontratu hau pribatua da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitakoaren arabera, eta, administrazio-arau espezifikorik ezean, lege horrek eta hura garatzeko xedapenek arautuko dute, prestaketari eta adjudikazioari dagokienez, eta, osagarri gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea aplikatuko da, eta, ondorioei eta amaitzeari dagokienez, klausula partikularren agiri honek eta zuzenbide pribatuko arauek.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu hauen xede dan kontratua, jarraian teknikoko deskribatzen den ibilgailu baten salmenta da:

Marka eta modeloa: Land Rover Discovery TD-6 Motorra: 2.700 mm3 Kilometroak: 161.000km aprox. ITV indarrean :2025-12-27 Potencia fiskalal:18,83/140 Matrikulazio data :14-05-2008 Plazak:5	Erregaia : Gasoila Kotxe barrua: Ibilgailuak dituen urteak daramatzaten gabeziak.(kristalak igotzekoa, jarlekua) Karroceria: Ibilgailuak dituen urteak daramatzaten gabeziak.

Ibilgailua ikusgai egongo da.

Ibilgailua gorputz zehatz moduan ematen da, bide publikoetatik zirkulatzeko gai, eta, beraz, administrazioak ez du haren egoeraren edo funtzionamenduaren erantzukizunik hartzen, ez eta saldu ondoren egin daitezkeen konponketena ere, eta hori guztia 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 114.2 artikuluaren arabera, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorrareren testu bateratua onartzen duena eta beste lege osagarri batzuk ere.

4. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Kontratatzailearen profilera , kontratu honen esleipenari eta formalizazioari buruzko informazioa publikatuko den tokira, anahi duen guztiak sartzeko era izango dau web orriaren bitartez:www.zeanuri.eus.

5. KONTRATAZIO ORGANOA

9/2017 Legea, azaroaren 9koa, Sektore Publikoko Kontratuenaren arabera, Alkatea da eskumena daukan organoa.

5. KONTRATUAREN AURREKONTUA

Kontratuaren lizitazio-aurrekontua 9.000€koa da, ibilgailuaren tasazioaren arabera.Lizitatzaileak prezio hori bardindu edo hobetu beharko dute.

Ibilgailuaren salmentak sortzen dituen gastuak hartzailearen kontura izango dira.

6. IBILGAILUAREN ESKUALDAKETA.

Ibilgailuaren eskualdaketa Zeanuriko udalean egingo da, behin kontratua siñatu eta ordainketa eginda. Horretarako interesatuek dirusarrera hori udaleko tesorerian egindakoaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute.

Ibilgailuaren salmentak sortzen dituen gastuak hartzailearen kontura izango dira.

ESLEIPEN MOTA

7, KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu hau zuzenean esleituko da, enkantea egin eta gero.Eskeintzarik onenari 100 puntu emango jakoz . Gainerako eskeintzak alderantzatzizko proportzionaltasunean baloratuko dira.

Eskeintza bi bardinak egongo balira berdinketa zozketa bidez erabakiko liteke.

8.KONTRATETAKO GAITASUNA.

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa daukien Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek, Kode Zibilaren arabera kontratatzeko gaitasuna dutenak eta bereziki salerosketa kontratua egiteko eta kontratuak egiteko ezarritako debekuetako batean sartuta ez badaude.

Pertsona juridikoek, esleipenaren ondorengo hamabost eguneko epean, honako hauek aurkeztu beharko dituzte: beren nortasun juridikoa egiaztatzeko agiri publikoak, kontratua egiteko gaitasuna, eta ordezkariari haren izenean jarduteko baimena ematen diotenak. Halaber, dagozkien ziurtagirien sinadurak legeztatuta eta legitimatuta egon beharko dira

Pertsona hauek ezin izango dira erosleak izan: konkurtso-eskaera egin dutenak edo konkurtso-deklarazioa dutenak, edozein prozeduratan kaudimen gabe deklaratuak izan direnak, esku-hartze judizialaren mende daudenak edo Konkurtsoari buruzko uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera desgaituak izan direnak, bai eta bateraezintasunei buruzko araudian aurreikusitako kasuetan erortzen direnak ere.

9. PARTEHARTZEA ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

1. Udalak kontratatzailearen profilean publikatuko du plegu hau. Ibilgailua erosteko interesatuak , publikazio argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta 15 egunetako epean bere proposamena aurkeztu ahal dute.

2 Lizitatzaileek , klausula honetan agertzen den dokumentazioa, bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira plataforma horren bidez. Sobre bakar batean aurkeztu beharko dute, proposamena aurkezten duenaren beraien izena eta abizenak eta noren izenean jarduten duten (bere izenean edo beste bat ordezkatuz), NIF-a, CIF.-a, notifikazioetarako helbidea, telefonoa eta emaile.

3-Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baiño gehiago aurkeztu.

4-Proposamena aurkezterakoan lizitatzaileak plegu honeek onartzen dituela ulertuko da eta Administrazioarekin kontratatzeko beharreko diren balintza guztiak dituela erantzukizunpeko adierazpen moduan hartuko da.

5- Klausula honetan aipatzen den gutunazalak honako agiri hauek eduki beharko ditu:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, 1. eranskinean agertzen den ereduaren araberakoa, Administrazioarekin kontratatzeko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela adieraziz. Nolanahi ere, kontratazio-organoak noiznahi eska dezake, esleipen-erabakia hartu aurretik, lizitatzaileek eranskin horretan adierazitako agiriak aurkez ditzatela.

2. Eskaintza ekonomikoa, 2. eranskinean jasotako dokumentuaren arabera.

10. KONTRATAZIOA MAHAIA

Osaketa hau izango da. Euskadiko Kontratazio Plataforman publikatuta dagoena.

11. KONTRATAZIO MAHAIAREN JARDUERA PROPOSAMENEN IREKIERAN

1. Gutun azala ekitaldi publikoan zabaldu: Aipatutako lekuan, egunean eta orduan, Kontratazio Mahaiak , ekitaldi publikoan gutunazala zabalduko du, partehartzaileak edo haien ordezkariak gonbidatuta egongo dira ekitaldian parte hartzen , ikusi dezaten aurkeztutako gutunazaletan ez dagoela aldaketarik.

2. Esleipen proposamena: Mahaiak, proposamen ekonomikorik abantailatsuena aurkeztu dauen lizitatzailearen esleipena proposatuko du.

III.ESLEIPENA

12. ESLEIPENA

1. Kontratazio organoak Mahaiak egindako proposamena kontuan izanda egingo du esleipena.

2.Esleipena kontratazio-organoak erabakiko du, Kontratazio Mahaiak proposamena egin eta hurrengo zazpi egun balioduneko epean. Ebazpen arrazoitua emango da, eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Kontratua esleitzeko gehienezko epea 10 egunekoa izango da, proposamenak irekitzen direnetik kontatzen hasita. Epe horren barruan ez bada esleipenari buruzko erabakirik hartzen, lizitatzaileek beren proposamena erretiratzeko eskubidea izango dute.

13. KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BALDINTZAK

Kontratuaren esledunak, jakinarazpena jaso eta 10 eguneko epean, honako frogagiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

2. Kontratuaren prezioa ordaindu izanaren egiaztagiria.

3. Epe hori amaitutakoan, kontratua sinatu ondoren, 5 egun balioduneko epean, erosleak kontratuaren xede den ibilgailua bere izenean inskribatu beharko du Trafikoko Zuzendaritza Nagusian.

IV.ARAUBIDE JURIDIKOA

14. KONTRATUAREN INTERPRETAZIO

Kontratuaren interpretazioa Zeanuriko udalaren eskumena izango da.

15. JURISDIKZIOA ETA ERREKURTSOAK

Kontratu hau pribatua da,Halan eta guztiz ere, bere prestakuntzan, esleipenean eta aldaketan sortzen diren inzidentziak, edo plegu hauen interpretazioa kontratazio organoak erabakiko beharko ditu, eta bere erabakiak bide administratiboa amaituko dute. Bestetik, administrazio bidea amaitzen duen egintza honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako epaitegi egokian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita 39/2015 , Administrazio Publikoen prozedura administratibo arrunta arautzen dauenaren arabera eta administrazioarekiko auziak arautzen dituan uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera eta eta, ondorioei eta amaitzeari dagokienez, jurisdikzio zibila izango da eskumena daukana.

5Zeanurin, 2025eko maitzaren 19an

I ERANSKINA

---------- Jn/and----------NAN zenbakiduna , “Land Rover Discovery”aren salmenta dala eta deitu den prozeduran Administrazioagaz kontratatzeko legezko diran baldintzak betetzen dituela aitortzen du eta ondoren aipatzen diren egiaztagiriak aurkezteko moduan dagoela, Zeanuriko Udalak eskatzen dionean.

-Eraketaren eta, hala badagokio, aldaketaren eskritura.

-Botere-eskritura.

-NAN (pertsona fisikoak).

-Kontratatzeko debekurik ez duela dioen erantzukizunpeko adierazpena.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Eta horrela jasota gera daiten eta sortu behar dauzen ondorioetarako, erantzunkizunpeko agiri hau aurkezten da.

Siñatua

II. ERANSKINA

---------- Jn/and----------NAN zenbakiduna eta ---------- helbideratua, bere izenean edo ---------- ren ordez, adierazten du, Land Rover Discovery ibilgailua iñorenganatzeko prozeduran, besterentzea arautzen duten agirien edukia jakinda eta berariaz onartuta, ……. euroko kopurua (zenbakiz eta letraz) eskaintzen duela.

Zeanurin, ----------

Siñatua